

Zauriak Sendatzeko Ukendua

Osagaiak

- Ur pixka bat
- Olio lau tanta
- Bi ezti goilakara
- Ardo zuriaren bi tanta
- Arrosaren hiru kimu
- Limoi bost tanta
- Hiru bitxilore
- Hamar baratxuri
- Zortzi krabelin
- Hamabi osasun belar
- Erromero hogei hosto
- Hiru brioleta
- Pinpilipaus baten bi hego
- Sorgin baten bi muki pinporta
- Hiru ile

Nola Egin

Mortairu batean baratxuria eta olioak botatzen da eta dena zanpatzen da. Dena zanpatuta dagoenean, arrosaren hiru kimu, hiru bitxilore, zortzi krabelin, erromero hogei hosto, hiru brioleta, pinpilipauxen bi hegoak, sorgin baten bi muki pinporta eta hiru ileak botatzen dira, eta dena zanpatzen da. Landare guztiak basoan egongo dira, sorginen ileak, Arreko mendiaren kobazuloan dagoen sorginaren ileak izan behar dira. Pinpilipauxa ere basoan egongo da eta ileak herrian. Eztiak Arabako mendian dauden erleena izan behar du, baina, hartu baino lehen, erle erregina hil behar da eta segituan mortairuan eztiak bota behar da.

Olioak eta urak etxean dagoena erabil daitezke. Ondoren Montekristo edo Otxoa ardo zuriaren bi tanta bota mortairuan. Gero, Atarrabiako azokan erositako limoi baten bost tanta bota eta dena zanpatu, ez bada ondo zanpatzen ur pixka bat gehiago botatzeak on egingo dio. Dena zanpatuta dagoenean, mortairuan zeunden landareak eta abar pasta edo pomada baten antzera geratu behar da. Ostean, pasta modukoa kristalezko pote batera bota behar da eta bukatzeko Arren dagoen mendiko kobazulo magikoan pasta hiru hilabetez utzi behar da hori hezetan eta tenperatura aproposa dagoen lekua baita.

Nola Erabili

Hiru hilabete pasatutakotan pomada hartu eta zauria daukazun tokietan eman beharko duzu eta hiru egun barru zauria sendatuta izango duzu.